

# JARRERAK, JARRERA ALDAKETAK ETA EGOZPENA

# 5. Atala. Gizarte Psikologia. Jarrerak, Jarrera Aldaketak eta Egozpena

## 1) **Jarrerak**

1.1) Zer da Jarrera

1.2) Jarreraren egitura eta osagaiak

1.3) Jarreraren funtzioak

1.4) Jarrerak eta Jokabideak

## 2) **Jarrerak: aldaketa eta konsistentzia**

2.1) Balantze / Oreka teoria (Heider)

2.2) Disonantzia kognitiboa (Festinger)

## 3) **Egozpena** – *oharra eskema aurrerago*

# 5. Atala. Gizarte Psikologia. Jarrerak, Jarrera Aldaketak eta Egozpena

- 1) **Jarrerak**
- 2) **Jarrerak: aldaketa eta konsistentzia**
- 3) **Egozpena: KAUSA-EGOZPENA, EREDU KLASIKOAK ETA EGOZPEN ISURIAK**
  - 3.1) Sarrera
  - 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea
  - 3.3) Jones eta Davis-en Inferentzia Korrespondienteen Eredua
  - 3.4) H. Kelley: Kobariazio Eredua
  - 3.5) Jones eta Nisbett: Aktore eta Behatzaileen arteko desberdintasunak
  - 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria
  - 3.7) Egozpenaren erroreak, sesgoak eta funtzioak
  - 3.8) Egozpena, sinismenak eta azalpen sozialak

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.1) Sarrera

##### ■ Egunerokoan...

- Edozein psikologo profesionalen moduan, edozein pertsonak datuak bilatzen ditu, iritziak eman ahal izateko. Zientzialariek ez bezala, datu-bilketarako informazio-iturriak, esperientzia pertsonalak eta komunikabideak izango dira.
- Edozein psikologoren moduan, pertsonak estratejiak erabiliko dituzte, datuak interpretatu, analizatu, eta laburbildu ahal izateko.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.1) Sarrera

- Egunerokoan... gertakari asko EZ dira guztiz auresangarriak eta barne-gatazka kognitiboak sortzen dizkigute, aurretik esperotakoak ezeztatu edo espero gabeko elementuak gehitzen dituztelako.
  - Adb: espero baino nota bajuagoa, lan-elkarrizketa eta gero lana ez lortzea, agurtzen ez gaituen lagun bat...
- Barne-gatazka gainditzeko kausa-egozpen prozesua martxan jartzen da, honen bidez ZERGATIK? galderari erantzuten saiatuko gara.
- ZERGATIK? horri erantzuna ematera eramaten gaituen prozesuari Gizarte Psikologian “EGOZPEN PROZESUA” deitzen zaio.
  - Heider (1958) izan zen ikertu zuen lehen autorea



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea


- **Heider:** pertsonak gertaera bat azaldutzat ematen dute ZERGATIK gertatu den aurkitzen dutenean. Errealitatea aurreikusi eta azaltzeko, sen oneko inferentzia-arauetara jotzen dute: Ekintzaren Analisi Xumea deitzen diona.
- **Ekintzaren Analisi Xumea:**
  - Egozpen-prozesu baten hasiera norbaiten (AKTORE) jokabidearen behaketa da, aurretiaz espero dena ez betetzeagatik pertsona bati (BEHATZAILE) deigarri gertatzen zaionean.
  - Egozpen-prozesua BEHATZAILEAK jokabidearen kausa aurkitu duela uste duenean bukatzen da. Bi kausa mota ditugu:
    - Barne-kausak: pertsonalak, AKTOREARI dagozkionak – bereak direnak (izaera ezaugarriak, jarrera, etab.) GAITASUNA + MOTIBOAK
    - Kanpo-kausak: ingurunekoak, TESTUINGURUARI dagozkionak (egoera, gizarte edo kultura egitura, etab.) ZAILTASUNA+AUKERA+ZORTEA
  - Intentzionalitatea egozteko, subjektuaren gaitasuna zenbait inguru-faktoreekin konbinatzen da, Heider-ek "boterea" deitzen duen faktore berria (subjektuaren gaitasuna+ingurunekoak) sortuz.

# 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

## 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea

### Attribution Theory

A claim about the cause of a person's behavior



**Fritz Heider** (February 19, 1896 – January 2, 1988) was an Austrian psychologist and credited with being the creator of Attribution Theory. In 1958 he published *The Psychology of Interpersonal Relations* in which he explains that behavior is attributed to various internal and external reasons.

□ Barne-kausen egozpena egingo da, egozpena egiten duen pertsonak jokabidea AKTOREarentzako posible zela garbi ikusten duenean (alegia, GAITASUNA + MOTIBO/MOTIBAZIOA zituela).

□ Kanpo-kausen egozpena egingo da, jokabideak AKTOREaren GAITASUNA + MOTIBO/MOTIBAZIOA gainditzen dituenean.



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea

Barne Kausak  
(Disposizionalak)



Gaitasuna -Nahi



Motiboak -Saiatu

Faktore pertsonalak

Boterea: Gaitasuna + Inguru Faktoreak

Inguru Faktoreak



-Zailtasuna

-Abagunea /Aukera

Kanpo Kausak  
(Egoerazkoak / Testuingurukoak)

-Zoria



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea. Adibidea.

***Lagun bat nire ondotik pasatu da eta ez nau agurtu. ZERGATIK????***



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea

- Laburbilduz: 3 puntu garrantzitsu egozpen-prozesuan Heider-en arabera:
  1. Aktorearen **GAITASUNAK** eta ekimenaren **ZAILTASUNAK** mugatzen dute ekimena aktorearentzako posiblea den.
  2. Ekimena aurrera eramateko **MOTIBAZIO**
  3. Aktoreak egindako **AHALEGINAREN IZAERA ETA/EDO INTENTSITATEA** – honetatik ondorioztatu edo inferitu daiteke motibazioaren presentzia edo gabezia

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.2) Heider-en Ekintzaren Analisi Xumea

- Egozpen-analisan oinarrituta garrantzitsua da erabakitzea gertakizun bat ematean, aktoreak duen erantzukizun pertsonalaren gradu edo neurria.
- Zenbat eta pisu gehiago inguruneko elementuk, orduan eta erantzukizun baxuagoa izango du pertsonak gertakizuna ematean.
- Heider-ek erantzukizun nibel/gradu desberdinak proposatzen ditu:
  1. *Asoziazioa: nibel baxuena – ez dago gaitasunik ez motibaziorik. Adb. Gidatzen ikasten hasi-berri denak norbait zapaltzen du nahi gabe.*
  2. *Kausalitate bakuna: gaitasuna badago – baina intentziorik ez. Adb. Gidatzen ondo dakien batek nahi gabe norbait zapaltzen du.*
  3. *Aurreikuspena: aurrekoa + pertsonak bere ekimenaren ondorioak aurreikusi beharko zituzkeen.*
  4. *Intentzionalitatea: gaitasuna + motibazioa*
  5. *Arrazoigarritasuna (justificabilidad): aurrekoa baina erantzukizuna eten egiten da bidezko defentsako egoera batengatik (legítima defensa).*

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

- Jones & Davis (1965) Egozpenek jokabideak aurreikusteko balio dute.
  - Adb. Pertsona bat alferra dela uste badugu, bere lana ondo ez duela beteko esperoko dugu, etab.
- Jones & Davis egozpen hauen ikerketan zentratzen dira – INFERENTZIA KORRESPONDIENTEAK izena ematen die: behatutako jokabidetik pertsonaren disposizio edo ezaugarri pertsonalak ondorioztatzen edo inferitzen dituztelako.
- INFERENTZIA KORRESPONDIENTE bat emateko aurretiko **kondizio** bat eman behar da: INTENTZIOA.

#### **Eredua bi urratsak:**


1. Behatutako portaeratik, intentzionalitatea inferitzea.
  2. Intentzionalitatetik, disposizio pertsonalak egotzi.
- Aktoreak jokabidea nahi gabe (intentzio gabe) egin badu, jokabide hori ezingo zaio bere ezaugarri pertsonalei egotzi. Intentzioaz gain, ekintzaren efektuak eta aktorearekiko espero dena ere kontuan izan behar dira.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

##### □ Ereduaren bi faseak:

1. Behaturiko ondorioetatik intentzionalitatea inferitzea
2. Intentzionalitatetik, dispozizio pertsonalak egoztea



Inferitua edo Ondoriotua

Behatua

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua



Udan -  
Neguan

Genero korrespondentzia: <https://www.youtube.com/watch?v=sow7snArn-M>

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

##### □ Intenzionalitatearen bi **baldintzak**:

- Behatzaileak onar dezan, aktorea kontziente dela bere ekintzak sortaraziriko ondorioetaz
- Behatzaileak ikus dezan aktoreak jokabidea burutzeko ahalmena duela
- Aurreko baldintzen gabezia intenzioa kanpora egozten da

##### □ Inferentzia-prozesuan **eragina duten faktoreak**

- a) intenzioa eta honek sortaraziriko jokabidea korresponditzen dute pertsonaren zenbait azpiko kualitate egonkorrekin
- b) Efektu ez amankomunak. Ekintza batek ondorio bakarra ekoizten duenean, beste ondorioetatik bereizten dena, ondorio honen bilakuntzan intenzionalitatea ondoriotzea errazagoa da, ondorio gehiago ekoizten ditenean baino

## 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

#### □ Ekintzaren efektu ez amankomunak:

- Harridura / Nabarmenkeria: ezagutzen dugun pertsona batek kirola uzten du, eta badakigu aktibitatea gustuko duela
- Efektuak: ze suposatzen du kirola uzteak – kirol-disziplina uztea, denbora libre irabaztea, gimnasioko kuota aurrezteak, entrenamenduko kideak ez ikustea eta aktibitate maila gutxitzea.
- Aldaketak: pertsona horrek entrenamendua jaia eta juergatik aldatzen baditu, efektu horietako batzuk mantentzen dira BAINA adibidez ez du dirurik aurreztuko eta ez du denbora libre gehiago izango. EFEKTU HAUEK BI AKTIBITATEENTZAT AMANKOMUNAK DIRA.
  - BAINA beste efektu batzuk bai aldatzen dira: pertsonak ez ditu bere entrenamendu kideak ikusi beharko eta bizitza lasaiagoa izango da. HAUEK DIRA EFEKTU EZ AMANKOMUNAK.
  - Zenbat eta BAXUAGO bi aktibitateen arteko **efektu ez amankomunen** zenbakia, HANDIAGOA izango da **inferentzia korrespondiente** bat egiteko probabilitatea
    - Adb: alferkeriaren egozpen-pertsonal bat probableagoa da pertsona bere entrenamendu-kideekin juergara joaten bada eta bere bizitza lehen baina aktibitate gehiagokoa bada. Efektu ez amankomun bakarria kirol-disziplina uztea litzateke.



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

##### **Efektu ez amankomunen analisia:**

- Aktorea, portaera desberdinen artean hautatzeko libre dagoen egoeratan aplikatzen da
- Behatzaileak zerrendatu egiten ditu portaera-alternatiba bakoitzaren ezaugarriak.
- Ondoren, hautatutako portaeran bestetan presente ez dauden ezaugarrika aurkitzen ditu.
- Ezaugarri ez amankomuna zenbat eta agerikoagoa izan edota zenbat eta negatiboagoak izan beste ezaugarriak, garrantzitsuagoa izango da kausa bezala.

■ Adibidea: Ikasketa aukeratzeko ikerketa (Jones & Davis, 1965):

Zergatik X eta ez Y ? Efektu ez amankomuna. Inferentzia: Klinika nahi duelako

Zergatik W eta ez Z ? Efektu ez garbia. Inferentzia: Klinika Nahi edo alferra delako!

##### **X Unibersitatea**

Prestijioa

Kurtso Klinikoa

Toki desiragarria

Lan eskakizun handia

##### **Y Unibersitatea**

Prestijioa

Toki desiragarria

Lan eskakizun handia

##### **W Unibersitatea**

Prestijioa

Kurtso Klinikoa

Toki desiragarria

##### **Z Unibersitatea**

Prestijioa

Toki desiragarria

Lan eskakizun handia

### 3) Kausa Egozpena, Eredua Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

##### □ **Efektu ez amankomunen analisia:**

- Aktorearek buruz espero dena (espektatibak): Aktorea arauen kontrako edo sozialki gaizki ikusitako jokabideak egiten ikusten denean, inferentzia korrespondiente bat egiteko probabilitatea gehitzen da.
  - Adb: lan-elkarrizketan pertsonak lan horretarako gaitasunik ez duela onartzen du. Arauen kontrako jokabideak aktorearekiko espero dena gutxitu edo ezeztatzen du. Espektatiba/esperotako hauek bakarkakoak edo kategorialak izan daitezke.
    - Bakarkakoak: behatzen dugu pertsonari buruz aurretiaz dakigunetik sortuak
    - Kategorialak: behatzen dugun pertsonaren talde edo kategoria sozialari buruz dakigunetik sortuak
    - Esperotakoa ez konfirmatzeak, arrazonamendu bezala ezaugarri pertsonal edo barnekoak bilatzera eramaten gaitu.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.3) Jones eta Davis: Inferentzia Korrespondienteen Eredua

##### □ **Gailentasun Hedonikoa:**

- Efektu ez amankomunak ugariak badira, eta/edo esperotakoak konfirmatzen badira, inferentzia korrespondiente baten probabilitatea oso baxua da edo ez dago. BAINA arrazoi afektiboek sortutako SALBUESPENAK daude:
- GAILENTASUN HEDONIKOA dago, aktoarearen jokabideak egozpena egiten duten pertsonengan ondorio positibo edo negatiboak eragiten baditu.
- GAILENTASUN HEDONIKOAK inferentzia korrespondiente bat egiteko probabilitatea gehitzen du (efektu ez komun eta esperotakoak alde batera utzita)
  - Adb. Behatzailearen kontra egindako irain edo jokabide agresibo bat errazago egotziko zaio aktorearen ezaugarri pertsonalei, irain edo jokabide agresibo hori beste bati egindakoan baino.
  - Badirudi, gailentasun hedonikoak, aspektu afektiboen eraginagatik, behatzaileak hautematen dituen efektu ez amankomunen kantitatean eragina duela – gutxiago hautematen ditu kasu hauetan.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- Egozpen-prozesuak aurreikuspen eta kontrol funtzioak betetzen ditu Heider-en arabera.
- Jones eta Davis-en Inferentzia Korrespondienteen Eredua beste pertsona batzuen jokabidearen aurreikuspenari eta kontrolari mugatuta dago, eta ingurunea bigarren maila baten ikusten/aztertzen du.
- Kelley (1967), egozpenaren ikerketara ikuspegi zabalago batetik gerturatzen da – “**Egozpen-Balioasuna**”-ren arazoa proposatuz, hau da:
  - *Nola erabakitzen dute pertsonak objektu bati buruzko beraien inpresioak zuzenak direla*

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- Edozein pertsonak egozpen bat egiterakoan kontuan izango du egoera eta momentu desberdinetan beste pertsona batek izan dituen jokabideak eta beste pertsona batzuk egoera eta momentu horietan izan dituzten jokabideekin alderatuko du. Kelley-ren teoriak behatzaileek kausa-inferentziak nola egiten dituzten azaltzen du, ondokoari dagokionez:
  - **Aktoreak (edo pertsonak)** (gizabanakoak edo taldeak).
  - **Entitateak/Estimuluak** (Aktorea interaktuatzen ari den objektuak).
  - **Egoerak** (jazoera ematen den egoera edo aukerak).
  - Edo, jazoera konplexuagotan, Aktore/Pertsona, Entitate eta egoeren **Konbinaketak**.
- Honela 3 informazio mota izango ditu:
  - Kotsentsua,
  - Distintibitatea y
  - Sendotasuna edo Konsistentzia
- Informazio osoko (kobariazio eredua) eta urriko egoeratako (kausa eskemak) estrategiak erabiliko ditu

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- Kelley-ren arabera kausa-bilakuntzan hiru informazio iturriak aztertzen ditu, aktore, egoera eta entitateari dagokienez.
  - **Kontsentsua:** beste pertsonak berdin erreakzionatzen dute estimuluaren aurrean (ALTUA) ala desberdin (BAXUA)? (estimulua edo entitatea jarri)
  - **Distintibitatea:** aktoreak berdin jokatzen du pareko egoeratan (BAXUA) ala egoera honetan bakarrik (ALTUA)? (egoera edo entitatea jarri)
  - **Sendotasuna/Konsistentzia:** aktoreak, iraganean (etorkizunean) berdin jokatuko luke estimuluaren aurrean (ALTUA) ala ez (BAXUA)?
- Ereduaren Supostuak: Behatzaileak informazio handia eta hiru informazio-iturriak elkarlotzen dituenean

<https://www.youtube.com/watch?v=Y1QFLkGI8Ug>

Inf. Gehiago: <https://www.youtube.com/watch?v=nB2ZRHS2RUE>

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- **Kontsentsua:** beste pertsonak berdin erreakzionatzen dute estimuluaren aurrean (ALTUA) ala desberdin (BAXUA)? (estimulua edo entitatea jarri)
- **Distintibitatea:** aktoreak berdin jokatzeko du pareko egoeratan (BAXUA) ala egoera honetan bakarrik (ALTUA)? (egoera edo entitatea jarri). Adb. Entrenamendua uzten duen pertsonak orokorrean ez dauka disziplina eskatzen duten bestelako aktibitateak uzteko joerarik.
- **Sendotasuna/Konsistentzia:** aktoreak, iraganean (etorkizunean) berdin jokatu luke estimuluaren aurrean (ALTUA) ala ez (BAXUA)? Adb. Askotan eta kontestu desberdinetan hasi da kirola egiten eta beti uzten du azkenean.

3 Elementu hauek 2 balore izan ditzazkete (ALTUA edo BAXUA) eta beraien artean konbinatu daitezke. Konbinazio hauen artean 3 dira behatzaileak egingo duen EGOZPEN mota erabakitzen dutenak.


OBSERVATION	INTERPRETATION	ATTRIBUTION OF CAUSE
Does person behave this way in other situations?	<b>YES:</b> Low distinctiveness <b>NO:</b> High distinctiveness	Internal attribution External attribution
Do other people behave the same way in similar situations?	<b>YES:</b> High consensus <b>NO:</b> Low consensus	External attribution Internal attribution
Does person behave this way consistently?	<b>YES:</b> High consistency <b>NO:</b> Low consistency	Internal attribution External attribution

Consenso	Consistencia	Distintividad
En qué medida el comportamiento de la persona es compartido por otras en la misma situación.	En qué medida la persona se comporta igual en todas las ocasiones frente a la misma situación.	En qué medida el comportamiento de la persona es específico para ese tipo de estímulo.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua / Teoria (1967). *Eranskina*

Batzuetan ANOVA eredua deitua Bariantza Analisiarekiko analogiagatik ( 2 x 2 x 2 Diseinua):





### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- ▣ Lehen konbinazioa: KONTSENTSU ALTUA – DISTINTIBITATE ALTUA – KONSISTENZIA ALTUA
- ▣ ESTIMULUARI/ENTITATEARI Egozpena
- ▣ Pertsona denek edo gehienek berdin erantzuten badute objektu / entitatearen aurrean (KONTSENTSU ALTUA), behatutako pertsonak desberdin erantzuten badu beste objektu / entitateen aurrean (DISTINTIBITATE ALTUA), eta objektu / entitate horren aurrea beti berdin erantzuten badu (KONSISTENZIA ALTUA), logikoena da pentsatzea **objektua / entitatea** dela pertsona horren jokabidea azaltzen duena.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- Bigarren konbinazioa: KONTSENSU ALTUA – DISTINTIBITATE BAXUA – KONSISTENTZIA ALTUA
- PERTSONARI Egozpena,
- Inork ez du objektu / entitate horren aurrean behatutako pertsona bezalako jokabidea (KONTSENSU ALTUA), pertsona honek berdin jokatzen du bestelako objektu / entitateen aurrean (DISTINTIBITATE BAXUA), eta jokabide berdina erakusten du bestalako momentuetan (KONSISTENTZIA ALTUA)

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua

- ▣ Hirugarren konbinazioa: KONTSENSU BAXUA – DISTINTIBITATE ALTUA – KONSISTENTZIA BAXUA
- ▣ EGOERARI Egozpena
- ▣ Inork ez du jokatzeko objektu / entitate horren aurrean behatutako pertsonak bezala (KONTSENSU BAXUA), pertsona horrek desberdin jokatzeko badu bestelako objektu / entitateen aurrean (DISTINTIBITATE ALTUA) eta jokabide desberdina erakusten badu momentu desberdinetan (KONSISTENTZIA BAXUA)

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak.

**Kelley-ren eredu testatu - McArthur (1972) - Emaitzak. Azaldu beharreko jokabidea: Joni ikusitako pelikula gustatu zaio.**

Subjektuei emandako informazio elementuen konbinazioa

Egozpenaren emaitzak

Kontsentsu altua: pelikula ikusten duten guztiak gustuko dutela diote.  
Distintibitate altua: Joni ia inoiz ez zaizkio gustatzen ikusten dituen pelikulak  
Konsistentzia altua: Joni pelikula hau aurrekoetan ikusi duenean ere gustatu zaio, bai zinean, bideoan etab.

ESTIMULUARI/ENTITATEARI, kasu honetan pelikularen ezaugarriei.

Kontsentsu baxua: ikusten duen ia inori ez zaio gustatzen pelikula hau  
Distintibitate baxua: Joni ikusten dituen pelikula guztiak gustatzen zaizkio.  
Konsistentzia altua: Joni pelikula hau aurrekoetan ikusi duenean ere gustatu zaio, bai zinean, bideoan etab.

PERTSONARI, kasu honetan Jonen ezaugari pertsonalei.

Kontsentsu baxua: ikusten duen ia inori ez zaio gustatzen pelikula hau  
Distintibitate altua: Joni ia inoiz ez zaizkio gustatzen ikusten dituen pelikulak  
Konsistentzia baxua: Joni aurrekoetan ikusi duenean ere ia inoiz ez zaio gustatu pelikula hau.

EGOERARI egozten zaio. Egoeraren ezaugarriren batek sustatzen du jokabidea.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak


#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak.

McArthur ,1972 ikus ere Fiske & Taylor, 35 or.):“Jon Lo gelditzen da **J. Irakaslearen eskolan**”.

- Jon **bakarrik** J-ren eskolan lo gelditzen **bada** (Kontsensus **Baxua**),
  - Jon **beti** lo gelditzen bada J-ren eskolan (Kontsistentzia **Altua**),
  - Jon **ez** lo egiten bada beste eskoletan (Distintibitate **Baxua**)
  - **Orduan Jonen** zerbaitek sustatzen du loa (**PERTSONA** Egozpena).
- 
- Edozein lo gelditzen **bada** J-ren eskolan (Kontsensu **Altu**)
  - Jon **beti** lo gelditzen bada J-ren eskolan(Kontsistent**Altua**),
  - Jon **ez** du lo egiten beste eskoletan (Distintibitate **Altua**)
  - **Orduan J. Irakaslearen** zerbaitek sustatzen du portaera (**ENTITATE/ESTIMULU** Egozp.)
- 
- Jon **bakarrik** J-ren eskolan lo gelditzen **bada** (Kontsensus **Baxua**),
  - Jon **inoiz ez** da lo gelditzen J-ren eskolan (Kontsistentzia **Baxua**),
  - Jon **ez** du lo egiten beste eskoletan (Distintibitate **Altua**)
  - **Orduan egoeraren** zerbaitek sustatzen du portaera (**EGOERA** Egozpena).


### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak




### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak


#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak






### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak

Zergatik uzten du Anek entrenamendua? Entitatea, Pertsona edo Egoeraren ezaugarriengatik

- ❑ **DISTINTIBATEA** (↑) Anek beste entrenatzaileak daudenean beti entrenamendua egiten du, baina Miren dagoenean ez
- ❑ **KONSENSUA** (↑) Besteek entrenamendua uzten dute Miren entrenatzailea dagoenean
- ❑ **KONSISTENTZIA** (↑) Anek Miren entrenatzailea dagoenean entrenamendua uzten du (**ESTIMULUA/ENTITATEA**)
  
- ❑ **DISTINTIBATEA** (↓) Anek beste entrenatzaileak daudenean beti entrenamendua utzi egiten du, eta Miren dagoenean ere bai
- ❑ **KONSENSUA** (↓) Besteek entrenamendua ez dute uzten Miren entrenatzailea dagoenean
- ❑ **KONSISTENTZIA** (↑) Anek Miren entrenatzailea dagoenean entrenamendua uzten du (**PERTSONA**)
  
- ❑ **DISTINTIBATEA** (↑) Anek beste entrenatzaileak daudenean beti entrenamendua utzi egiten du, baina Miren dagoenean ez
- ❑ **KONSENSUA** (↓) Besteek entrenamendua ez dute uzten Miren entrenatzailea dagoenean
- ❑ **KONSISTENTZIA** (↓) Anek Miren entrenatzailea dagoenean entrenamendua ez du uzten (**EGOERA**)

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua. Adibideak

#### **Laburbilduz:**

- Konsistentzia *baxua* bada, EZ dugu *estimulu/entitate* egozpena egiten.
- Konsistentzia *altua* bada, *konsensua eta distintibitateari* arreta jartzen diegu egoera azaltzen laguntzeko
- Konsistentzia *ALTUA* denean.....
  - Portaera *baxua* bada, bai konsensuan bai distintibitatean, *barne* egozpena egiten dugu
- Konsistentzia *ALTUA* denean ....
  - Portaera *altua* bada, bai konsensuan bai distintibitatean, *estimulu/entitate* egozpena egiten dugu

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua / Teoria

## KAUSA ESKEMAK:

- Kobariazio ereduaren limitazioetako bat:
  - egozpena bakarrik informazio elementu guztiak ditugunean egin dezakegula.
  - bizitza errealean elementu hauetako batzuk ez ditugu aurkituko edota behatzaileak ez du denborarik / modurik izango informazio elementu hauek jasotzeko eta prozesatzeko.
  - Honek ez du esan nahi egozpena ezinezkoa denik, behatzaileak badituelako KAUSA ESKEMAK edo prekontzepzioak ze kausa ze efektukin doan erlazionatzeko
- Beraz informazio urria dugunean erabiltzen ditugu
- Kausa Eskema aurrekontzepzio bat da, efektu bat egozterakoan, bi kausak edo gehiagok nola interaktuatzen dutenari buruzko aurrekontzeptzioa alegia (Kelley & Michela 1980, 1984).

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua / Teoria

#### □ KAUSA ESKEMA MOTAK:

1. *Kausa anizkun nahikoen eskema (causas suficientes múltiples):* Faktoretako baten presentzia nahikoa denean, ondorioa azaltzeko
2. *Nahitaezko kausa anizkunen eskema (causas necesarias múltiples):* Faktore guztiak beharrezkoak dira, ondorioa azaltzeko
3. *Halo-eskema edo efektua: Sesgo kognitiboa, ikusten dugun indikadore baten eraginez pertsona bati ezaugarri edo kualitatate batzuk egozte.*
4. *Eliminazio edo discounting printzipioa: Aurrekoaren alderantzizkoa. Kausa batek jokabide bat azaltzeko daukan garrantzia gutxitu egiten da beste azalpen / kausa posible batzuk daudenean.*

Adibidea :

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua / Teoria

#### **1) Kausa anizkun nahikoen eskema (*causas suficientes múltiples*):**

- Azaldu beharreko efektua edo behatutako jokabidea, hauek gertatzen diren momentuan presente dauden kausa desberdinei egotzi ahal diegunean aplikatzen da eskema hau, beti ere, kausa horietako bakoitza nahikoa denean efektua edo jokabidea azaltzeko.
- Eskema honekin batera, gaitzespenaren egozpen-printzipioa ematen da, hau da, garrantzia gutxiago ematen zaio kausa bati, ematen den efektua edo jokabidea azaltzeko kausa possible gehiago daudenean.

- 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak  
3.4) Kelley-ren Kobariazio Eredua / Teoria

## **2) Nahitaezko kausa anizkunen eskema (*causas necesarias múltiples*):**

- Efektu hau bakarrik bi baino kausa gehiagok batera eragiten dutenean ematen da.
- Adibidez (Kun y Weiner, 1973) izugarritzko magnitudea duten jokabide edo efektuak azaltzerakoan.
- Horrela, eginbeharreko oso zail bat arrakastaz egitea lortzen zenean, ahalegin+gaitasunaren eragin bateratuagatik azaltzen zen.



3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak

## □ Funtsezko Postulatua:

- **Aktoreak** bere jokabideari buruzko egozpenak (auto-egozpenak), kanpoko inguru-faktoreei begira egiten ditu,
- **Behatzaileak** aldiz, jokabidearen egozpenak aktorearen barne disposizioei begira egiten ditu (Jones & Nisbett, 1971).

3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak  
3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak.  
*Eranskina*

## □ Nola azaldu egozpen-desberdintasun hauek?

- Azalpen Kognitiboa: zerbaitetan aritzen denak bere burua hobe ezagutzen eta informazio gehiago du, behatzaileak baino
- Hautemate Azalpena: behatzailearentzat, egoeraren estimulu nabarmenena eta atentzio gehien eskatzen duena aktorea da. Bestalde, gehienetan aktoreak ez du atentzioa bere buruarengan jartzen, inguruetik jasotzen ari den estimulazioan baino
- Azalpen motibazionala: aktorea kanpoko egozpenak egiten saiatzen da bere jokabidearen balizko ondorio negatiboen erantzunkizunetik aldegiteko, behatzaileak aldiz, ez du motibazio hori partekatzen
- Kontrol-beharraren azalpena: Aktoreak kanpoko egozpenak egiterakoan ingurunearari buruzko kontrol-sentimentua mantentzen saiatzen da

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak



- Egozpen-desberdintasun hauek gutxitzen dituzten faktoreak?
  - Behatzaileak aktorearen papera hartzen duenean, behatzaileak kanpoko egozpenak egiten ditu (Storms 1980).
  - Enpatia aktiba dezaketen egoerak gertatzen direnean, aktoreak eta behatzaileak eginiko egozpenen arteko desberdintasunak desagertzen dira.
  - Behatzaileak aktoreari buruz duen ezaguera

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak

- Fiske & Taylor-ek prozedimentu bat proposatzen digute, Aktore eta Behatzaileen arteko Egozpen-Desberdintasunen hipotesia proban jartzeko. Eginbeharra:
  - Partehartzaileei adjetibo lista bat ematen zaio.
  - Ebaluatu adjetibo horiek ze mailatan aplikatuko litzaizkiokeen bere buruari, eskala bat erabilia.
  - Gero, pentsatu bere lagun onenarengan, eta era berdinean ebaluatu
  - Alderatu emaitzak

la inoiz ere ez	Gutxitan	Batzutan bai eta batzutan ez	Askotan	la beti
-2	-1	0	1	2

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak

- a) Erantzun ondorengo galderei zuzan pentsatuz
- b) Erantzun ondorengo galderei lagun on batengan pentsatuz

1. Serioa, axolagabea, egoeraren arabera
2. Indartsua, erlaxatua, egoeraren arabera
3. Indulgentea, gogorra, egoeraren arabera
4. Realista, idealista, egoeraren arabera
5. Bizia, Lasaia, egoeraren arabera
6. Ixila, hiztuna, egoeraren arabera
7. Tinkoa, flexiblea, egoeraren arabera
8. Arduratsua, zakarra, egoeraren arabera
9. Itxia, emozionalki irekia, egoeraren arabera
10. Dominatzailea, edukatua, egoeraren arabera

la inoiz ere ez

Gutxitan

Batzutan bai eta  
batzutan ez

Askotan

la beti

-2

-1

0

1

2

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak


- HIPOTESIA betetzen da BALDIN ETA lagunari emandako puntuazioa norberarena baino altuagoa bada emaitza absolutuetan.
  - Honen arabera, norbere jokabidea aldakorra da egoeraren arabera, baina bestena konsistentea / establea bezala ikusten da (Fiske & Taylor, 1984, pp. 76-77).
- Jones & Nisbett-en arabera aktore-behatzailearen arteko desberdintasunak sistemikoak dira eta faktore informatibo, pertzeptibo eta motibazionaleri erantzuten die. Adb:
  - Behatzaileak orokorrean ez daki behatu duen jokabidea adierazgarria / ohikoa den edo ohiz kanpoko
  - Bestalde, aktoreak badaki aurretik pasatutako antzeko egoeretan berdin edo desberdin erreakzionatu duen, eta hortaz bere egozpena honen arabera ajustatu dezake.

3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.5) Jones & Nisbett: Aktore eta Behatzaile Arteko Egozpen-Desberdintasunak.

*Eranskina*

**BUT ..... Miller (1984)**  
**Individualism and the correspondence bias**



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria

- **Lorpen + Porrotaren portaerak azaltzeko teoria motibazionala**
  - Weiner-ek, Heider-ek arestian planteiaturiko postulatuak garatuko ditu.
    - Gogoratu, ikerlari honek zenbait kontzeptu erabiltzen zuela bere teoriaren aplikapenean, hala nola **Gaitasuna, Zailtasuna eta Zoria**.
  - Weiner-ek bestalde kontzeptu-multzo horri beste bat erantsiko dio ariketan **Esfortzuarena** alegia. Beraz, guzti honekin Weiner 4 egozpen mota hauek zein kontestutan ematen diren agertzen saiatuko da.
  - Weiner-ek postulatu du jendeak kausa-irritziak egiterakoan 3 dimentsio kontutan izaten dituela eta ez barne-kanpo unidimentsionalitatea bakarrik

1 – Inf. gehiago <https://www.youtube.com/watch?v=YMxY9s58tso>

2 – Inf. gehiago <https://www.youtube.com/watch?v=EZUpBwliUsl>

3 - Inf. gehiago Weiner on sport psych: [https://www.youtube.com/watch?v=6WIVL\\_SgmN4](https://www.youtube.com/watch?v=6WIVL_SgmN4)



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria

- **Barne-Kanpo Dimentsioa:** arrakasta edo porrotaren kausa subjektuaren barnean edo kanpoko faktoreetan aurkitzen da?
  - **Egonkortasuna-Egongaitzaren dimentsioa:** arrakasta edo porrota eragiten duen kausa denboran zehar aldagaitza edo aldakorra da
  - **Kontrolabilitatea-Inkontrolabilitatea:** Subjektuak pentsatzen du arrakasta-porrotean nolabaiteko kontrola duela, ala alderantziz, bere eskutik kanpo dela
- Dimentsio mota honetariko bakoitzari erantzuten diogun arabera, egozpen mota bat edo bestea egingo dugu

**Egozpena**

**Gaitasuna**

**Esfortzua**

**Zoria**

**Zailtasuna**

Barnekoa

Barnekoa

Kanpoko

Kanpoko

**Ezaugarriak**

Egonkorra

Egongaitza

Egongaitza

Egonkorra

Kontrolagaitza


Kontrolagarria

Kontrolagaitza

Kontrolagaitza



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria. Eranskina



#### LOCUS DE CONTROL

- | Locus de control interno   | Locus de control externo   |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>La persona cree que puede controlar su vida</li> <li>Confía en que sus propias habilidades o debilidades son la razón del éxito o fracaso en su vida</li> <li>Suele tener un gran sentido de auto responsabilidad sobre sus acciones</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>La persona cree que sus decisiones y su vida están controladas por factores externos</li> <li>Confía en que su éxito o fracaso es el resultado del destino, suerte o decisiones de otros</li> <li>Los eventos de la vida no están basados en el propio desempeño</li> </ul> |



	INTERNAL		EXTERNAL	
	STABLE (Ability)	UNSTABLE (Effort)	STABLE (Task Difficulty)	UNSTABLE (Luck)
CONTROLLABLE	It is not my area of interest.	I didn't study well for this Exam.	The teacher hates me.	Little or no support from family & friends.
UNCONTROLLABLE	I don't have the skills nor ability.	I was sick.	School has very high standards.	Bad luck!

Cause	Locus of causality	Stability	Controllability
Ability	Internal	Stable	Uncontrollable
Effort	Internal	Unstable	Controllable
Task difficulty	External	Stable/unstable <sup>a</sup>	Uncontrollable
Luck	External	Unstable	Uncontrollable

<sup>a</sup>Task difficulty, in some situations, can also be considered as unstable. Weiner (1983, 1985) suggests that ease or difficulty of task is stable when the same

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria

Eskola porrota edo/porrota sozialaren, *hautemaniko kausen* adibideak

#### Dimentsioen

##### Sailkapena

B/EK/KT

B/EK/KG

B/EG/KT

B/EG/KG

K/EK/KT

K/EK/KG

K/EG/KT

K/EG/KG

##### Errendimendua

Gaitasun Urria

Ez du inoiz Ikasten

Azterketan Gaixo

Azterketa horretan  
ez ikasi

Eskakizun handiak

Irakasleak Gorroto

Zori Txarra

Lagunek ez zioten  
Lagundu

##### Soziala

Komunikazio gaitasun baxua

Orraztu gabe dabil

Eskakizunak egiteko urduri

Aurretik ez du deitzen gelditzeko

Erljiioak/legediak ez dio uzten

Nahiago du gaez ikastea

Bere ama gaez zaindu behar

Telebista ikustea nahi du

#### Egozpena

Gaitasuna

Esfortzua

Zoria

Zailtasuna

#### Ezaugarriak

Barnekoa

Barnekoa

Kanpokoak

Kanpokoak

Egonkorra

Egongaitza

Egongaitza

Egonkorra

Kontrolagaitza

Kontrolagarria

Kontrolagaitza


Kontrolagaitza

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria

#### □ **Emozioei buruzko inplikazioak**

- Bere Ereduren arabera portaeraren ondorioek batetik, emozio orokorrak, eta bestetik egozpen konkretuak sustatzen dituzte,
- Hala ere bere eredu orokorrean prozesu kognitibo, emozionalak eta portaerazkoak elkarlotzen ditu: *“Pentsatzen dugun arabera sentitzen dugu, eta gure sentimenduen arabera jokatzeko dugu”* (Weiner 1986, 307)



- Honek esatea nahi du, kognizioak beti emoziora eramaten duela, eta azken honek portaerara
- Gainera, emozio jakin bakoitza, egozpen prozesu jakinaren ondorioa izango da

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria. *Emozioak eta estigmatizazioa. Eranskina.*

Table 5  
Mean Values for 10 Stigmas on 7 Variables Related to Perceived Controllability: Experiment 2

Stigma	Condition	Rated variables						
		Responsibility	Blame	Like	Pity	Anger	Assistance	Charitable donations
Alzheimer's disease	c	3.6	3.1	5.8	6.7	2.5	7.3	5.9
	uc	[0.9]	[1.1]	[5.9]	[7.5]	2.0	7.7	[6.7]
	ni	1.2	1.4	6.3	7.1	2.4	7.3	6.3
Blindness	c	6.6	6.3	4.4	4.9	3.9	6.5	4.8
	uc	[1.1]	[0.8]	[6.5]	[7.6]	[1.6]	[7.9]	[6.8]
	ni	1.5	1.3	6.9	6.7	1.9	7.9	6.7
Cancer	c	6.1	5.0	4.9	5.3	4.0	6.3	5.3
	uc	[1.2]	[1.3]	[6.2]	[7.5]	[1.8]	[7.5]	[7.0]
	ni	2.7	2.6	6.9	6.9	2.2	7.5	6.9
Heart disease	c	6.5	5.0	4.7	4.7	3.8	5.9	4.4
	uc	[1.0]	[1.0]	[6.4]	[7.0]	[1.6]	[7.4]	[6.3]
	ni	3.4	2.9	6.6	6.3	2.1	7.3	6.1
Paraplegia	c	5.9	5.2	5.1	5.9	3.9	6.8	5.2
	uc	[0.7]	[0.9]	[6.3]	[7.4]	[1.6]	[7.6]	[6.6]
	ni	2.1	2.3	6.4	7.1	2.0	7.7	6.7
Vietnam War syndrome	c	3.1	2.7	5.2	6.5	2.6	6.9	5.5
	uc	[1.8]	[1.7]	[5.8]	7.0	2.3	[7.2]	[6.4]
	ni	1.2	1.6	6.2	6.8	2.2	7.4	6.5
Acquired immune deficiency syndrome (AIDS)	c	6.7	6.2	3.5	4.9	4.2	4.8	4.2
	uc	[0.6]	[0.8]	[5.9]	[8.2]	1.8	7.1	[6.9]
	ni	5.2	5.2	4.8	6.0	3.6	5.2	5.5
Child abuse	c	6.5	6.4	2.4	3.8	7.2	4.4	2.8
	uc	[5.6]	[5.6]	[3.0]	5.0	6.7	4.9	[3.1]
	ni	5.4	5.2	2.9	4.4	6.7	4.9	3.7
Drug abuse	c	6.4	6.2	3.7	4.5	4.7	5.4	3.6
	uc	[4.1]	[4.1]	4.8	5.5	3.1	6.2	4.2
	ni	6.4	6.1	4.0	4.7	5.2	4.9	4.0
Obesity	c	6.4	5.9	4.6	4.6	3.3	5.8	3.2
	uc	[2.6]	[2.5]	[5.4]	[6.3]	2.4	6.6	[4.7]
	ni	5.2	4.8	5.9	5.5	2.7	6.3	4.0

Note. Brackets indicate a significant difference between conditions ( $p < .05$ ). c = controllable information; uc = uncontrollable information; ni = no information.

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria. *Esperientzia-Egozpena-Emozioa Loturak. Eranskina*

#### Esperientzia

1. Arrakasta
2. Porrota
3. Arrakasta
4. Porrota
5. Porrota
6. Porrota

#### Egozpena



- Barnekoa-Kontrolagarria
- Kanpokoia-Kontrolagarria
- Kanpokoia-Kontrolagarria
- Barnekoa-Kontrolagarria
- Barnekoa-Kontrolagaitza
- Kanpokoia-Kontrolagaitza

#### Emozioa

- Harrotasuna**
- Amorrua**
- Eskertasuna**
- Erruduntasuna**
- Indefentsioa**
- Errukia**

- 1 Harrotasuna: emaitza positiboak selfari egotzi
- 2 Amorrua: emaitza negatiboak besteei egotzi
- 3 Eskertasuna: emaitza positiboak besteei
- 4 Erruduntasuna: Norberari (kontrolagarria)
- 5 Indefentsioa: emaitza negatiboak faktore kontrolagaitzei
- 6 Errukia: emaitza negatiboak kanpoko arrazoi kontrolagaitzei

Outcome






### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.6) Weiner-en Egozpen Teoria. Artikulutik ideia nagusiak atera eta teoriarekin lotu

1. Irakurri artikulua eta ideia nagusiak adostu taldean
2. Lotu ideia nagusiak Egozpen Teoriarekin - Weiner

## Weiner's Theory in Practice

Types of causes		Outcomes contributed to	
Stability	Locus	If fail	If succeed
Stable	External	<b>Difficult task</b> (No shame but no expectation of future success) <b>(uncontrollable)</b>	<b>Easy task</b> (Little pride, little intrinsic motivation) <b>(uncontrollable)</b>
	Internal	<b>Low ability</b> (shame, try to avoid task in future) <b>(uncontrollable)</b>	<b>High ability</b> (Pride, expect future success, high motivation) <b>(uncontrollable)</b>
Unstable	External	<b>Bad luck</b> (little shame, possible change in the future) <b>(uncontrollable)</b>	<b>Good luck</b> (Little pride, low intrinsic motivation) <b>(uncontrollable)</b>
	Internal	<b>Insufficient effort</b> (some shame, but possible future interest and success with effort) <b>(controllable)</b>	<b>Hard work</b> (Much pride, but future success not certain without effort. Some intrinsic motivation) <b>(controllable)</b>



### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.7) Egozpenaren erroreak, sesgoak eta funtzioak

- Egozpen-iritzietan orokorrean ez dago errealitatearen irizpide sendorik, horregatik sesgoei buruz hitzegin behar dugu.
- Fiske eta Taylor-en arabera (1984, p.73) pertsona batek egozpen-iritzi bat egiterakoan, sesgoak ditu, egozpen-prozedimentu zuzen bat sistematikoki distortsionatzen duenean, gehiegi edota gutxiegi aplikatzeagatik.





3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.7) Egozpenaren erroreak, sesgoak eta funtzioak

- Egozpenaren Oinarrizko Errorea eta Egozpenaren Azken Errorea (*Error fundamental y el error “último” de atribución*)
  - Hauek dira egozpenaren inguruko ikerketetan aurkitu ditzakegun sesgo ezagunenak.
  - **Egozpenaren Oinarrizko Errorea:** besteen jokabidea azaltzeko beraien barneko disposizioak (izaera, pertsonalitatea, ezaugarriak...) arrazoi bezala jartzeko gehiegizko tendentzia. Egoeraren indarrari ez dio behar bezalako pisurik ematen edo honen eragina ukatzen du.



3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.7) Egozpenaren erroreak, sesgoak eta funtzioak

## □ Egozpenaren Azken Errorrea o Aktore-Behatzaile Sesgoa

■ Egozpenaren Azken Errorrea talde-erlazioetako azalpen-joera ohiko bat da. Azalpen-asimetria konsistente bat ematen da Arrakastaren/Porrotaren azalpenean:

- Norbere taldearen arrakastak barneko-kausei egozten dizkiegu (gaitasun eta konpetentzia altuak / egokiak izateari adibidez). Porrota berriz kanpo-kausei egozten diogu (zorte txarra edo besten inbidia etab.)
- Beste pertsona edo taldeen arrakasta berriz, kanpo-kausei egozten diogu (zoria, jasotako laguntzari etab.). Porrota berriz barne-kausei egotziko diogu (gaitasun-eza edo ezaugarri positiborik ez izatea).



Egozpenaren erroreak eta sesgoak:

<https://www.youtube.com/watch?v=SQZvuCV8nvw>

### 3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

#### 3.7) Egozpenaren erroreak, sesgoak eta funtzioak. *Eranskina*

##### □ *EGOZPEN* sesgo eta erroreen adibide gehiago:

1. *Kontrol Lilura*: Subjektuek bere ingurunea kontrolpean jartzeko duten posibilitateari buruzko usteei dagokio, osoki zorizkoak diren egoerak barne
2. *Mundu Justuko Usteak*: Bizitzan bakoitzak merezi duena lortzeari buruzko usteei dagokio
3. *Positibitate Sesgoa*: Subjektuari arrakastak eta kanpoko inguruneari porrotak egozteari dagokio (Ross 1981).
4. *Errepresentatibitate Sesgoa*: Errore-mota hau kategorizazio-arazoetan sortzen da, pertsona/elementu bat kategoria batekotzat hartzen dugu, nahiz eta kategoria horren ezaugarriren batekin bakarrik egokitu
5. *Disponibilitate Sesgoa*: Heuristiko-mota hau, gertaera zehatz bat emateko probabilitateari buruz iritziak ematean datza, gertaera honek pertzepzioan, oroimenean... duen eskuragarritasunaren arabera (Fiske & Taylor 1984; Eiser 1988)
6. *Doikuntza edo Aingurapen Sesgoa*: gertaera-konjuntzioen gertagarritasuna gainestimatzean, eta gertaera-disjuntzioen azpiestimatzean datza (Fiske & Taylor 1984)

Azalpenak (3 sesgo mota): <https://www.youtube.com/watch?v=pJl8LfnPPB8>

Kontrol Lilura: <https://www.youtube.com/watch?v=t4MJhLNVKig>

3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.7) Egozpenaren erroreak, sesgoak eta funtzioak

## □ EGOZPENAREN FUNTZIOAK

1. **KONTROLA:** jokabidearen azalpena eta aurreikuspena bilatzen dira
  - Adb. Zerbait txarra gertatzen zaien pertsonak negatiboki hautemateko tendentziak edo gaixotasunak gure errua direla sinisteko tendentziak – gertaera txarrak edo gaixotasunak, nolabait, kontrolagarriak direla sinisteko beharrari erantzuten diote.
  - Izan ere, adibidez gaixotasuna, zoriagatik gertatzen dela sinisten badugu, ezingo dugu ekidin.
2. **AUTOESTIMUA:** sesgo egozentrikoetan adierazten da
3. **NI-aren AURKEZPENA:** ez da ohikoa. Garrantzitsua beste pertsona batzuekin elkarbanatutako egozpenaren-komunikazio bidez, hauen onespina lortu edo egoera deserosoak ekidin nahi direnean.

3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.8) Egozpena, sinismenak eta azalpen sozialak

## □ PROZESAMENDU ORIGINALAREN IKUSPUNTUA

- Egozpen-prozesua hasiera baten informazio-prozesamendu bezala ikusi zen, kausa-ondorio erlazioak jasotzen dituenak.
  - Aurretiko prozesamendu batetik barneratu/ulertu ezin diren estimuluei aurre egiterakoan jartzen zen martxan soilik (Heider, Jones & Davies, Kelley-ren ikuspuntuak).
  - Prozesamendu originalaren ikuspuntua da – aspektu kognitiboak azpimarratzen dira, eta aspektu sozialak berriz alde batera uzten dira (Wells, 1981).

3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.8) Egozpena, sinismenak eta azalpen sozialak

## □ PROZESAMENDU SOZIALIZATUAREN IKUSPUNTUA:

- Ikerketa desberdinek agerian utzi dute prozesamendu sozializatuaren ikuspuntua kontuan izateko beharra
  - Aurretiko ikaspen eta esperientzia + komunikazio bidez transmititzen diren pentsatzeko moduetan oinarrituta.
  - Kelley & Michela (1980) pertsonak askotan egozpenak egiten dituzte aurreko sinesmenetatik abiatuta.
  - Aktoreari buruzko aurretiko espektatibak dituzte, bai aktorea pertsonalki ezagutzen dutelako edo badakitelako talde edo kategoria sozial konkretu batekoa dela.

3) Kausa Egozpena, Eredu Klasikoak eta Egozpenaren Ikuspegiak

3.8) Egozpena, sinismenak eta azalpen sozialak

□ Hewstone (1989) haratago doa eta ondorengoak proposatzen ditu:

□ KULTURALKI PARTEKATUTAKO SINESMENAK /

□ EGOZPEN-SOZIALAK

□ EGOZPENEN BERDINTZE edo UNIFORMIZAZIOA:

- Adb. Funham (1982) Ingalaterran pobreziaren azalpenari buruzko ikerketa: alderdi kontserbadoreko (Tory) boto-emaileek pobreziaren azalpen indibidualistak ematen zituzten, hau da, pobrezia jende pobrearen jokabide desegokiari egozten diote. Bestalde, alderdi laboristako (Labour) boto-emaileek, azalpen sozial, estruktural edo ekonomikoak egozten zizkieten pobreziari.
- Adb. Lerner (1966) Mundu Justu edo Bidezkoaren Hipotesia: bakoitzak merezi duena daukala pentsatzeko joera

- Abantaila sozialen eragina: [https://www.youtube.com/watch?v=1z1D2\\_KWCbU](https://www.youtube.com/watch?v=1z1D2_KWCbU)
- Elkarbanatzen dugun guztia: <https://www.youtube.com/watch?v=jD8tjhVO1Tc>